

ETXEZ ETXEKO MAILEGU ZERBITZUAREN BALDINTZAK

Erabiltzaileak adierazten du ezagutzen eta onartzen dituela mailegu-zerbitzua, oro har, eta etxez etxekoa, bereziki, arautzen dituzten baldintzak. Gainera, hitz ematen du jasotzen dituen argitalpenak Jabetza Intelektualari buruzko legediaren arabera erabiliko dituela. Legedi horren kontra egindako edozein arauhauste irakurlearen erantzukizuna izango da.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra betez, jakinarazi behar dizugu, zure datuak "Liburutegi Publikoen Katalogoa" izeneko fitxategiaren barnean sartuko direla. Horren helburua da, maileguen eta liburutegien ezagutzaren kontrola izateaz gain, liburutegien etekinaren eta estatistiken adierazle gisa erabiltzea, liburutegien zerbitzuen hedapena barne. Bere erantzulea Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritza da. Datuok Toki Administrazioari lagatu ahal izango zaizkio, Euskadiko Irakurketa Sare Publikoa garatzen duen 11/2007ko Legeak ezarritakoari jarraituz, eta administrazio horrek bere eskumenei dagokienez datuok erabili ahal izango ditu, Datu Pertsonalen Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa abenduaren 5eko 3/2018 Legerari men eginez.

Aipatutako Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren arabera, datu-lagatzaileak edozein momentutan izango ditu datuok sartzeko, zuzentzeko, deusezteko eta aurka egiteko eskubideak, arauz ezartzen denari jarraituz eta helbide honetara zuzenduz: Kultura eta Hizkuntza Politika Saila – Zerbitzu Zuzendaritza, Donostia-San Sebastián kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz